



2019ko MEMORIA

[www.caritasgi.org](http://www.caritasgi.org)



**Caritas**  
Gipuzkoa

# Aurkezpena eta esker ona

Urteak joan urteak etorri, pobrezia eta gizarte-bazterketak pertsona askoren sufrimendu larria eragiten du, Gipuzkoan ere bai, eta Caritas horren lekuko leiala da (FOESSAren behaketez eta azterketez gain, esperientzia handia dugu eguneroko jardunean). Sufrimendu horrek pertsona jakin batzuei erasaten die, familiei, haurrei, emakume kalteberei, bakarrik dauden adinekoei eta gaixoei. Sufrimendu horren oinarrian faktore ekonomikoez gain, faktore moralak eta sozialak ere badaude (horietako asko harremanekin lotuta daude, batez ere). Onartu behar da, hala ere, sufrimendu horrek berak eskuzabaltasun-mugimendu handi bat bultzatu duela pertsona eta erakunde askoren

artean, eta hori agerian jarri eta eskertu behar da gure izenean eta, batez ere, pertsona ahulen izenean. Eskuzabaltasun horrek gogorarazi digu, beste behin ere, zorionekoak garela oso jende eta erakunde konprometituak ditugulako. Jende ona, solidarioa, ahalegin handia egiten duena. Batzuk langile profesionalak dira, beste batzuk boluntarioak, buru eta bihotz ari direnak. Gizarte-lanak hori eskatzen du, gogorra da, akigarria. Dena ematen duten pertsonak egongo ez balira, inork espero duena baino gehiago eman ere, gure egoera bestelakoa izango litzateke. Eskerrik asko gure lana ahalbidetzen duten pertsona guztiei. Eskerrik asko langileei; eskerrrik asko boluntarioei; eskerrrik asko inplikaturako erakundeei, emailei, parrokiei, erlijio-komunitateei, kristautaldee eta Caritasen konfiantza duten ezezagun guztiei, erakunde



zintzoa, gardena eta irabazi-asmorik gabekoa den aldetik. Eskerrrik asko. Memoria honek errealitate baten ikuspegi hurbila baina mugatua emango digu, oso zaila baita pobrezia larritasuna adieraztea, bai eta ematen ari garen karitate- eta justizia-zerbitzu erreala azaltzea ere. Gure lana, funtsean, beharrean dagoen pertsona bakoitzari harrera egitea, entzutea, ondoan egotea eta laguntza zehatza ematea da. Ez da ongintza hutsa, erabaki sendoa hartu baitugu: pobrezia kausen aurka borrokatzea, ez pobrezia eustea. Pobrezia ez da endemikoa, ez da konponezina, gizartearen arazo bat da, eta moralak esaten digu konpondu behar dugula, gizartearen eta Elizaren kide garen aldetik. Behartsuekin gaude, baina pobrezia aurka. Egoera ahulenean dauden pertsonen ondoan gaude, baina haien eskubideak defendatzeko,

behar bezala errespetatu ditzaten eta denok duintasunez bizitzeko oinarri-oinarrizkoa izan dezagun. Elizak horren alde egiten du (horrela adierazi dugu gure Plan Estrategikoan). Pertsonak gure begiraden erdigunean jarri nahi ditugu, mundu honetako biktimekin inplikatu nahi dugu, ahulenean eta pobreekin, baina aldatzera eta bilakatzerako bultzatuko gaituen estilo eta espiritu batekin, pertsonak eta gizarte hobetzeko. Berri on horretan dago Caritas, ekintza komunitarioko eliz erakunde den aldetik, eta beti egongo da gizartearen zerbitzura, bultzatzen gaituzten balioetan oinarrituta.

**Xabier Andonegi Mendizabal,**  
kontsiliaria



# Gure gizarte-ekintza


Caritas Gipuzkoak, elizaren karitatearen adierazpen eta elkarte gisa, bere gain hatzen du gure gizarteko pertsona zaugarrienei eta Lurreko herri pobretunei laguntzeko misioa, komunitate kristauen bitartez haien erabateko garapena sustatuz. Konpromiso hori aurrera eraman ahal izateko, Caritas Gipuzkoak Ebanjelioan eta Elizaren

Irakasbide Sozialaren funtsezko printzipioetan jartzen du arreta. Pobrezia-egoeran dauden pertsoneri harrera egin eta laguntza ematen diegu, lehenbizi lurraldetik abiatuz. Handik, laguntza bila hurbiltzen diren pertsona eta familia guztiak hartzen ditugu, eta harrera horren oinarria entzutea, hitz egitea eta laguntzea da, elkarrekikotasun-harremana eraikitzeko.


## DATU ESANGURATSUAK



### Partea-hartzaileak



### Boluntarioak



♥ "Karitatea izan dadila zuen lotura estua" (Kolosalrei 2,2)

## Lurraldeko ekintzaren arloa

Artatutako pertsonak 14.278  
Boluntarioak 603  
Eginiko inbertsioa 2.555.211€



### Harrera espezifikoak

Deszentralizazio-prozesu bat burutu dugu, pertsonak bizi diren lekutik hurbilen dagoen gunean artatzeko. Horretarako, Gipuzkoako parroketako Caritasera eraman ditugu baliabideak. Parroketako Caritaseko taldeei lagundu nahi diegu, esku-hartze sozialeko esparruan laguntza teknikoa eskainiz.

2019an, parroketako Caritaseko 85 taldeek 6.208 etxetako 14.278 pertsona artatu dituzte. Jasotako laguntza-eskaerak eta planteamendu edo erantzunak askotarikoak dira, baina denek ezaugarri bera dute: prekaritate ekonomikoa, gizarte- eta harreman-laguntza gutxi, entzuteko eta abegi pertsonalizatua jasotzeko beharra, hau da, partekatze beharra.

## Urteko gertaera adierazgarriak

► Parrokietako Caritaseko taldeei berregituratzen, berriz irekitzen eta eratzen lagundu zaie, beren errealitatera egokitzeko: Gros, Intxaurren, UPA Ulipen, Olaberri eta Zaldibiako Caritas.

► Andoingo Caritaseko taldearekin batera, Babes Komunitarioa, josteta-lantegia.

► Secours Catholique de l'Adour-ekin (Frantziako Caritas) koordinazio-lana egin da, igarobidean dauden migratzaileen errealitatea aztertzeko eta haien premiei erantzuteko.

► Tokian tokiko proiektu hauek babestu dira:

### ►► Ekialde

Errenteria eta Irun: eskola-laguntzako proiektuak.

### ►► Beterri

Andoain: eskola-laguntza, Babes Komunitarioa, josteta-lantegia.

### ►► Urola-Kosta

Azpeitia: abegi-etxe bat.

Azkoitia: abegi-etxe bat.

Zarautz: 2 abegi-etxe eta baratzeak lantzeko lantegi okupazionala.

### ►► Goierri

Beasain: hizkuntzak ikasteko lantegia.

Lazkao: baratzeak lantzeko lantegi okupazionala.

Ordizia: ehun-lantegia

Ataun: eskulan-lantegia eta

eskola-laguntzako proiektua. Legorreta: eskola-laguntzako proiektua.

### ►► Mendebalde

Oñati: baratzeak lantzeko lantegi okupazionala.

Arrasate: etxeko langileentzako lan-orientabideko zerbitzua, Bidean zentro okupazionala (Sarea Fundazioarekin elkarlanean).

Bergara: etxeko langileentzako lan-orientabidea.

Eibar: eskola-laguntza eta hizkuntzen ikaskuntza.

Deba: hizkuntzak ikasteko lantegia, sukaldaritza-lantegia eta baratzeak lantzeko lantegi okupazionala.

### ►► Donostia

Abegi-etxe bat.



## Komunitate-animazioa

Helburua parrokietako komunitateek Caritasen misioa bete dezaten laguntzea da, eliza-komunitatea parte hartzera bultzatuz.

## Hechos significativos del año

► Boluntario berriak geureganatzea.

► Opil Solidarioa abian jartzea.

► Ospakizunak sustatzea, parte-hartzaileak eta partekatuak izan daitezzen (Pazkoa, Korpus, Gabonak).

► Borondatezko lana sustatzea eta zaintzea, laguntza eta prestakuntza emanez eta omenaldi txikiak ospatuz.

► Karitateaz eta komunitatearen zentzuaz gogoeta egiteko elkarguneak sortzea.



## Etixerik gabeko pertsonen arloa

Artatutako pertsonak 828  
Boluntarioak 274  
Eginiko inbertsioa 1.529.764€

**E**tixerik gabeko pertsonen arloaren helburua gizarte-bazterketako eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea da; hau da, bizitegirik ez dutenei eta gizarteratzeko prozesu bat egiteko zailtasunak



dituztenei laguntzea. Zailtasun horiek kanpokoak izan daitezke (adibidez, oinarrizko premiak betetzeko gutxieneko diru-sarrerak ez edukitzea) eta barnekoak izan daitezke, arrazoi psikologikoengatik eta kontsumo-ohiturengatik.

### Aterpe eguneko zentroa

Etixerik ez duten pertsonak egunez artatzeko zerbitzu bat da. Bertan, kalean bizi eta zailtasun handiak dituzten pertsonak artatzen dira, batez ere. Zentroan, oinarrizko premiak betetzeko laguntza ematen da; besteak beste, elikadura gure jantokian, eta higiena, antolatu ditugun dutxa- eta garbitegi-zerbitzuen bidez. Zerbitzu horiek batik batik boluntarioek kudeatzen dituzte, kontratatutako langileen laguntzarekin.

### Aterpe gaueko zentroa

Gaueko ostatu-zerbitzu bat da. Zentroak 22 ohe ditu, beren burua zaintzeko laguntza eta baliabide gehien behar dituzten pertsonentzat. Gehienbat osasun-arazoak dituzten pertsonak dira, ostatu izan ezean bizi-arrisku handia dutenak.

### Eutsi

Programa honen funtsezko helburua da kalean dauden, gizarte-bazterketako egoera larrian diren eta kontsumo-arazoak dituzten pertsonen okerrera ez egitea eta arazo horiek prebenitzea.

Pertsonen laguntza intentsibo eta hurbila eskaintzen du. Elkarrekin egoteko eta harremanetarako harrera- eta entzute-gune bat du, bai eta norbera ahalduzko jardueragela bat ere, eta elikadura- eta higiene-premiei erantzuten die.

### Laguntza etxea

Gizarte-bazterketako eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak egunez artatzeko zentro bat da. Lehenetsuna ematen zaie lan-merkatuan sartzeko prestakuntzazko inklusio-prozesu bat egin dezaketenei. Alde batetik, oinarrizko premiei erantzuten zaie, hala nola jantokia eta garbitegia. Bestetik, aldizkako jarraipen bat egiten da, pertsona horien gizarteratze- eta laneratze-ibilbidean helburuak ezarriz.

### Hotzaldi

Hotzaldi gaueko abegi-zentro bat da, kalean bizi diren pertsonak artatzeko. Bertan, atsedean hartzeko leku komun bat eskaintzen dugu, eta oinarrizko elikadura- eta higiene-premiei erantzuten diegu. Zentroa irekita dago gaueko 21:00etik hurrengo goizeko 9:00ra arte urteko egun guztietan. 47 ohe ditu, eta komunak, dutxak, kontsigna, jangela eta egongela.

### Bidelagun

Gizarte- eta bizitegi-bazterketako egoeran egonda, gure zerbitzuetara etortzen ez diren edo artatzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzeko zerbitzu bat da. Laguntza hori kalean dauden pertsonengana hurbilduz eskaintzen dugu. Pertsona horiei lagun egiteko, adore eta denbora gehiago behar da.



## Familiaren, emakumeen eta umeen arloa

Artatutako pertsonak 1.203  
Boluntarioak 36  
Eginiko inbertsioa 233.928€

**A**lor horretan, baliabideak eskaintzen zaizkie pertsona eta familiei, laguntza-programen bidez eta giza sustapeneko prozesuak garatzen dituen laguntza eskainiz.

### Adore

Helburua familien gaitasunak indartzea eta hobetzea da, laguntza eskainiz, autonomia eta gizarteratze handiagoa lor dezaten, eta trebetasun pertsonalak eta/edo harremanetarakoak garatuz.

### Miriam

Miriam programan gizarte-egoera ahulean dauden emakumeak artatzen ditugu, gizarte- eta familia-laguntza gutxi edo batere ez dutenak. Emakume gehienak migratzaileak dira (% 87), eta horietako % 71 administrazio-egoera irregularrean daude. Emakume horien profilak askotarikoak izaten dira; adibidez, genero-

indarkeriaren biktimak izaten dira, bidaia ordaintzeko zor ekonomiko bat dutenak eta seme-alabak familiartekoen ardurapean utzi dituztenak. Artatutako emakumeen kopurua aurten ere oso handia izan da: 1.166 pertsona artatu ditugu. Horietatik 737k tailer eta prestakuntza-ikastaroren batean parte hartu dute. Orientabideko eta enplegu-bilaketako zerbitzuaren bitartez, 175 familien eskaerak kudeatu dira. Familia horiek artatu eta etxeko-langileen eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa eman zaie eta horrek aukera eman du 103 lan-kontratu egiteko.



Gainera, genero-indarkeriaren biktima diren 12 emakumeei orientazioa eta aholku eman diegu. Kasuren batean, gainera, laguntza psikologikoa emateko laguntza aktibatu da Familientzako Aholku Etxearen bitartez (FAE).

### Bultzada

Programa honen helburua da neska-mutilei beren eskolatzean eta sozializazioan laguntzea, garapen pertsonal eta sozialerako erabakigarria den lehen etapa hori sendotzeko. Helburu hori eskolako lanak egiten lagunduz, ikasteko motibazioa landuz eta autonomia sustatuz lantzen da. Gainera, familiei laguntza ematen zaie eskolari dagozkion gauzetan, eta koordinazioa egiten da ikastetxeekin.



## Etxebizitzaren eta egoitza-zentroen arloa

Artatutako pertsonak 180  
Boluntarioak 23  
Eginiko inbertsioa 1.633.830€



**A**rlor honetatik bizileku-premiaz gain beren bizi-proiektu autonomoan bestelako babesak behar dituzten pertsonak eta familiak artatzen ditugu.

### Trintxer egoitza-zentroa

Trintxer egonaldi luzerako egoitza-zentro bat da, gizarte-bazterketako egoeran dauden gizonak artatzeko, egoera kronifikatuan daudenak eta maila pertsonalean, gizartean eta harremanetan arazo larriak dituztenak. Baliabide honetan egiten den gizarte-ekintzaren helburua egoitzan dauden pertsonen gizarteratze-prozesuak sustatzea da, bai eta pertsona kaltetueneren arazoak gutxitzea ere. Trintxer Egoitza Zentroan ahalegin handia egin da aurten, esku-hartzeak pertsonen profil, arazo eta beharrei egokitzeko: kontsumo aktiboen indize gero eta handiagoak dituzten gizonak, patologia mentalak dituztenak, gizarte-bazterketa maila handia eta, beraz, baliabidetik irteetan gizarteratzeko zailtasun handiak dituztenak, desgaitasun- eta mendekotasun-maila handia dituztenak...

Alde horretatik, lorpen nagusia kontsumo aktiboekin zentroan egindako esku-hartzea nabarmendu behar da, pertsonak Trintxerren segitzeko aukera izan dezaten eta beren prozesu pertsonalekin jarraitu dezaten.

### Emeki egoitza-zentroa

Emeki egonaldi ertaineko egoitza-zentro bat da, gizarte-bazterketako egoeran dauden 18 urtetik gorako emakumeak artatzeko, maila pertsonalean, gizartean eta harremanetan arazo larriak dituztenak. Emekiren helburua emakume horiei laguntzea eta gizarteratzeko prozesuak eskaintzea da, haien egoera hobetzeko. Aurten, profil berriak sortu dira, hau da, arlo hauetan arazo handiagoak dituzten emakumeak: gizarte-bazterketa,



gaixotasun mentala, desgaitasuna eta mendekotasuna.

### Sorabilla egoitza-zentroa

ESorabilla egonaldi ertaineko egoitza-zentro bat da, gizarte-bazterketako egoeran dauden 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazte helduak artatzeko, maila pertsonalean, gizartean eta harremanetan arazoak dituztenak. Zentroaren helburua gizarteratze-prozesuak eskaintzea da, gazte horien ongizate psikologikoa eta soziala hobetzeko. Sorabillan sartzen diren gazte gehienek administrazio-egoera irregularra da eta zailtasun handiak dituzte beren egoera erregularizatzeko. Hala ere, aurten Sorabillako gazte batzuek bizileku-baimena, lan-baimena eta lan-kontratua lortu dituzte.

## Betania Etxea egoitza-zentra

Betania Etxea 1991n sortu zen, HIESa zuten pertsonak, baliabide ekonomikorik eta gizarte- eta familia-laguntzarik ez zutenak, artatzeko eta laguntzeko. Hasieran zailtasun handiak izan arren, Betania Etxea erreferente bihurtu zen HIESa zuten pertsonen zaintzaren alorrean, arazo hori oso larria zen garaian.

Urteak igaro ahala, eta tratamendu medikoen aurrerapenarekin, Zentroak hartzen zituen pertsonen profila desagertzen joan zen. Gogoetaldi luze baten ondoren, Caritasek Betania Etxea ixtea erabaki zuen 2019ko azaroan. Zentroak bete zuen sortzean izan zuen gizarte-funtzioa.

Asko zaindu da artatutako pertsona bakoitzaren egoera handik irtetea, eta norberaren egoerara egokitutako baliabideetara bideratu da.

Eskerrak emateko ekitaldiak egin dira, batez ere Karitateko Alabei eskertzeko beren bizitzaren zati bat pertsona horiek zaintzen eman dutela, bai eta boluntarioei eta langileei ere, urteetan egindako lan handia eskertzeko ere.

Betania Etxeko familia handia osatu duten pertsona guztiei,  
ESKERRIK ASKO!!



## Programa Zubia

Pograma honen bitartez aldi baterako egonaldi bat eskaintzen dugu gure etxebizitza-sarean, baita gizarte- eta hezkuntza-laguntza integrala ere ostatu-premia duten eta egoera ekonomiko ezegonkorrean eta/edo zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterketa egoeran diren pertsonen eta familiei.

Eman beharreko laguntzan, pertsonaren edo familiaren esparru guztiei heltzen zaie.

Helburua bizitza autonomoago bat garatzeko gaitasunak eta baliabideak eskuratu ditzaten lortzea da. Aipatu behar da erdiak familia gurasobakar amadunak izan direla, eta nabarmenezkoa da bakarrik dauden eta seme-alaben ardura duten ama horiek zailtasun erantsiak dituztela beren prozesu pertsonalak,

prestakuntzakoak eta lanekoak seme-alabak zaintzearekin uztartzeko, ez baitute familiaren eta gizartearen laguntzarik.

Familia askok beren egoera kronifikatu dute, zailtasunak baitituzte etxebizitza bat eskuratzeko. Arazo handia da eta hor jarraitzen du, pertsonen eta familien bizitzan oso ondorio negatiboak eraginez, batez ere egoera ahulenean dauden pertsonen eta familien artean.

♥ “Karitateak bakoitzak daukanarekin parte hartzeraz darama” (Juan 3, 17)

## Ekonomia solidarioaren arloa

Artatutako pertsonak 42  
Boluntarioak 19  
Eginiko inbertsioa 844.482€

«Ekonomia-jarduera eta aurrerapen materiala gizakiaren eta gizartearen zerbitzura jarri behar dira. Ekonomia baliagarria da bere funtzioa alde batera uzten ez duenean, hau da, gizakiaren eta gizartearen garapen integrala eta bizitzaren kalitate humanoa lortzeko tresna izatea”. (Elizaren Irakasbide Sozialaren laburpena, 326.a).

Caritasenentzat, ekonomia solidarioa erronka bat eta errealitate bat da. Horregatik, ekonomia egiteko beste modu baten adierazgarri diren proiektuak garatzen ditugu:

### Kitzin: bidezko merkataritzako denda

Bidezko merkataritzako produktuak salduz, Caritasek gardentasunean eta zuzentasunean oinarritutako harreman ekonomiko justuak lortzeko lan egiten du, eta hegoaldeko herrietako pertsona ekoizleen eta langileen eskubideak bermatzen ditu, beren lanaren bidez duintasunez bizi daitezten.



### Zenbait datu

► Dendan egindako zuzeneko salmenta: Afrika, Asia eta Latinoamerika hornitzaile txikien produktuak. Elikagaiak, eskulanak eta kosmetikoak.

**Salmenta: 46.440€**

► Azoka txikien bidez: Parrokietako taldeak: Villabona, Elgoibar, Donostia Aiete-Trintxerpe, Lasarte, Erreterria. Ikastetxeak: Erreterriako Telleri, Donostia San Igancio-jesuitak, La Anunciata, Larramendi, Azpeitiko Iraurgi, Proclade Donostia, DEUSTO unibertsitate, Trintxer.

Eta zenbait denda eta saltoki.

**Salmenta: 18.578€**



### Lamorus hezkuntza eta okupazio tailerra

Gizarte-bazterketa eta bizitegi-bazterketa pairatzen duten pertsonen lanerako heziketa eta prestakuntza emateko lantegia da. Helburua pertsonaren sustapenari laguntzea da. Gizarte-trebetasunak eta laneko ohituren ikaskuntza sustatzen dira, pertsonaren ahalduntze-maila handiagoa lortze aldera. 42 pertsona artatu dira.

### Finantza etikoak

Caritasek finantza etikoetako ekimenak sustatzen ditu, dimentsio etiko bat gehitu duten finantzaketa-sistemen aldeko konpromiso gisa, eta, besteak beste, inbertsio-funts etikoak erabiltzearen alde egiten du, eta FIARE banku etikoaren alde egin eta sustatzen du.



### Enpresa bihoztunak. Enpresaren gizarte-erakuntza

Caritasen uste osoa dugu enpresek funtsezko eginkizuna dutela ekonomia globalean. Horregatik, enprekin elkarlanean aritzea bide indartsua da ekonomia solidarioa eraikitzen jarraitzeko eta guztien ongia lortzeko, bai pertsonena, bai gizartearena.

Gure iritziz, ekonomia solidarioak enpresen eguneroko jarduna argitu dezake eta lekukotasun handia izan, eta lor dezake enpresen gizarte-erantzukizun korporatiboko funtsak gizarte-egoera ahulenean dauden taldeetara bideratzea, enpleguak, prestakuntza eta abar eskainiz.


### Nazioarteko lankidetzak

Jardunbideak gero eta urrutiago eramaten. Caritasek berretsi egiten du Lurreko herri guztien erabateko garapena lortzea helburu duen karitatearen dimentsio unibertsala. Karitate hori ekintzetan gauzatzen da, tokiko Caritasen eta komunitate erlijiosoan anaitasunezko babesa izan nahi duten ekintzetan..

### Emakume-proiektuak nazioarteko lankidetzan

Caritas bazterketa- eta pobrezia-errealitateak, batzuetan oso larriak, egunero bizi dituzten emakumeengana ere hurbiltzen da, planetako hiru herrialdetan. Zehazki, hezkuntza, osasuna eta gaitasunak hobetzeko proiektuetan elkarlanean aritu gara Puerto Ricon, Dominikar Errepublikan eta Kolonbian.

Guztira  
**273.515€**



♥ "Ez lotsatu gure jaunari buruz eman behar duzun lekukotasunaz" (2 Timoteo 1,8)

## Komunikazioko, eragineko, prestakuntzako eta boluntariotzako arloa



### Komunikazioa eta eragina

Errealitate sozialen eta Gipuzkoako Caritaseko arlo bakoitzean egiten ditugun jardueren berri ematen dugu, honako helburu hauekin: gure eragileen berri ematea eta haiek zaintzea, gizartea sentsibilizatzea gizartea eraldatzeko, eta eremu publikoan eragiteko ahuleziak eta bidegabekeriak argitzea. Posta elektronikoaren bidez komunikatzen ditugu barneko publikoak eta webgunearen bidez sare sozialak gure jarraitzaileei. Facebook, twitter, Instagram eta

WhatsAppen presentzia dugu Sentsibilizazioan presente jarraitzen dugu kanpaina instituzionalen bidez, ikastetxeetan eta unibertsitateetan dugun presentziarekin eta hainbat espaziotan hezkuntza-tailerrak eskainiz. Kontzertuak, erakusketak eta abar antolatzen laguntzen jarraitu dugu.

Donostiako Zuzenbide Fakultateko paraninfoan, Caritas Euskadik Euskal Autonomia Erkidegoko Bazterketari eta Gizarte Garapenari buruzko 2019ko Txostena aurkeztu zuen azaroaren 21ean, gizarte zibilaren ordezkariak zabal baten aurrean, eta, ondoren, arratsaldeko saioan, gonbidapen irekia egin zitzaion gizarteari.

### Prestakuntza

Desde esta línea de trabajo ofrecemos formación al personal contratado y al voluntariado. Hemos organizado talleres de formación y hemos estado presentes en Eibar, en Deba, en Andoain, Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Renteria, Irun y en Donostia donde hemos acompañado el aprendizaje sobre el modelo de acción social y Doctrina Social de la Iglesia. Además de darle continuidad a los encuentros anuales BIDEK e IBILIAN.

► **Gazteak:** Desde la jornada de encuentro con jóvenes en abril del 2018 hemos ido generando diferentes espacios y actividades que ayuden a Caritas a ser más significativa entre la juventud. Desde mayo recogemos un formulario y ofrecemos un espacio de acogida diferenciado, y a su vez, tenemos un grupo de difusión dirigido a jóvenes y hemos diseñado talleres bimensuales para dar a conocer nuestra labor con diferentes colectivos sociales.



### Boluntariotza

es parte fundamental en la labor de Caritas, está presente en todos los programas y centros de la entidad y realizan labores de apoyo en la acogida, en la escucha, en el acompañamiento, en la formación de las personas vulnerables. Es la propia humanidad la que mueve a las personas a ser voluntarias y para ello, el voluntariado tiene que sentirse parte de una misión y de un equipo que pretenden el desarrollo humano de las personas excluidas, además cuentan con las herramientas educativas necesarias para su tarea de acompañamiento.



## Kudeaketa- eta administrazio-arloa

### Caritasek aholkularitza juridikoko zerbitzu bat du

1.796 pertsona artatu dira. Artatutako pertsonen multzoa nahiko parekidea da generoari dagokionez, adinez nagusiak dira gehienbat, eta bakarrik dauden gazte etorkin asko daude, ETXERIK GABEKO PERTSONEN Programan artatzen dituztenak batik bat. Gure aholkularitza administrazio-zuzenbidean kokatzen da oro har, hau da, pertsonak administrazioarekin duten harremanean, eta gure ekintza pertsonen eskubideetara bideratzen da beti. Informazio, laguntza eta laguntza-lan espezializatua egiten da familia-zuzenbidearekin, etxebizitzarekin, pentsioekin eta gizarte-prestazioekin eta




atzeritartasun-eskubidearekin lotutako egoeretan, besteak beste. Nabarmen hazi da nazioarteko babes-eskaeraren aurretik aholkularitza eskatu duten pertsonen kopurua. Aholkularitza juridikoa, era berean, Caritaseko arlo eta proiektuetara zuzentzen da, eta garrantzi berezia ematen diogu Parrokietako Caritaseei eskainitako aholkularitza eta prestakuntza. 2019an, Espainiako nazionalitatea lortzeko eskaerak aurkeztu ditugu, Espainian jaio eta urtebeteko legezko bizilekua duten adin txikikoentzat. Gutxienez, 20 adin txikikok eskuratu dute horrela Espainiako nazionalitatea. Gauza bera gertatu da antzeko heldu-kopuru batekin; izan ere, Cervantes institutuko azterketak prestatzen lagundu genien, ondoren Espainiako nazionalitatea eskatzeko. Atzerriko berrogeita hamar familiei ere lagundu diegu familia-berrelkarketa eta adin txikikoen errotzea burutzen.




# Finantzaketa eta gardentasun

Kanpoko enpresa batek urtero ebaluatzen ditu Donostiako Elizbarrutiko Caritasen kontuak. 2019. urtean ALTER CONSULTING enpresak egin du kanpo-ikuskapen hori.

## € Inbertsioa 8.056.280€




### JARDUERAREN BOLUMENA, GUZTIRA




### Baliabideen jatorria

#### Baliabide publikoak



#### Baliabide propioak





**D**onostiako elizbarrutiko Caritasek bost FUNDAZIO eratu ditu artaturiko pertsoneri eragiten dieten arazoei erantzun espezializatuagoa emateko.

## Izan fundazioa

1984an eratu zen irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu gisa, mendekotasunak tratatzearen arloan jarduera eta zerbitzu sorta zabal bat sortzeko, garatzeko eta hobetzeko helburuarekin. Izan Fundazioak bi programa nagusi ditu: **Gizakia Helburu**, mendekotasuna dutenei eta haien senitartekoei arreta integrala eskaintzeko, eta **Norbera Programa**, nerabezaroaren berezko arazoei heltzeko.

[www.izan.org](http://www.izan.org)



## Hurkoa fundazioa

1990. urtean sortu zen eta helburu du ahulezia-, mendekotasun- edo babesgabezia-egoeran dauden adineko pertsonen edo gaixotasun mentala duten pertsonen eskubideak artatzea, babestea eta defendatzea.

[www.hurkoa.eus](http://www.hurkoa.eus)

## Fundación Gizaide

1997. urtean sortu zen, gaixotasun mentala duten pertsonak artatzeko helburuarekin. Honako baliabide hauek ditu:

- ▶ Eguneko Zentroa gaixotasun mentala duten helduentzat.
- ▶ Gaixotasun mentala duten emakumeentzako etxebizitza, intentsitate handiko zainketa duena.
- ▶ Gaixotasun mentala duten pertsonentzako bi etxebizitza, intentsitate ertain eta txikiko zainketa dutenak.

[www.gizaide.eus](http://www.gizaide.eus)



## Fundación Sarea

1997. urtean sortu zen, lana lortzeko desabantaila larriak dituzten kolektiboen artean, lan-munduan txertatzeko jarduerak sustatzeko eta enplegua sortzeko.

[www.sarea.com](http://www.sarea.com)

## Fundación Hurkoa Zainduz

2013an sortu zen, mendekotasuna duten adineko pertsonak eta haien zaintzen dituzten familiak artatzeko helburuarekin.

[www.hurkoa.eus](http://www.hurkoa.eus)

# 2020ko gertaera garrantzitsuak: covid-19

**A**urten, martxotik aurrera bizi dugun COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerak gizarte-krisia sortu du, eta oso zaila da kuantifikatzea zer intentsitate eta iraupen izango duen. Krisialdi horrek, ziur asko, larrialdiaren aurretik zeuden gizarte-arrakalak handitu egingo ditu.

## Krisialdi honen aurpegiak

### ► **Familiak eta, batez ere, bakarrik dauden eta seme-alaben ardura duten emakumeak,**

lanbide-prestakuntza gutxi dutenak, langabezian daudenak edo enplegu prekarioak dituztenak, laguntza sozial eta ekonomiko txikia edo batere ez dutenak. Aurrezkirik gabeko familiak Caritasi laguntza eskatu behar izan diotenak. Diru-iturririk gabeko familiak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren sistematik kanpo daudenak. Zaintza-lan guztiak egin behar dituzten familiak, konfinamendua arintzean lana eta familia bateragarri egiteko aukerarik ez dutenak, eta zailtasun

handiak dituztenak seme-alaben hezkuntza-prozesuetan laguntzeko.

► **Etixerik gabeko pertsonak,** egokitutako baliabideetan konfinatuta egon direnak, zer gizarte-laguntza eskuratu dezaketen ez dakitenak. Egoera ahulenean dauden pertsonak dira, diru-sarrerarik gabe, bizilekurik gabe eta osasun-arazoak ere badituztenak, eta laguntza handia behar dutenak. Gainera, prestakuntza- eta lan-prozesuak eten zaizkie, baita gizarte-baliabideak ere eta zailtasun eta premia handia dute osasun-jarraipenak egiteko.

## Datorrigun erronkak

► **Baliabide publikoak indartzea,** gutxieneko diru-sarreraren bidez elikagaiak eskuratu ahal izateko, bai eta osasun-zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza eta enplegu publikoa eskuratu ahal izateko. Horretarako, askotan, administrazio-baldintzak malgutu beharko dira.

► **Giza balioak indartzea,** gure gotzainek esaten duten bezala: “Murgilduta gauden krisialdi ekonomiko eta sozialak ahaleginak areagotzea eskatzen du, austeritate pertsonalaren, eskuzabalatasunaren eta konpromisoaren aldetik. Jainkoaren Herri osoak parte hartu behar du benetako elkartasun-ekonomia bat ezartzeko. Lan egin behar dugu, behartsuenak, ahulenak edo bazterketa-arriskuan daudenak alde batera ez uzteko.” (34) “Une egokia da ekonomiaren oinarrian dauden egiturak berraztertze, egin beharreko zuzenketak egiteko, jarduera ekonomikoaren erdigunea gizakia izan dadin.” (35)